Lehendakaria / Presidente
**Imanol Zubizarreta Arteche**

Kidea / Vocal
**Mikel Ulazia Etxabe**

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria
**Nekane Orbegozo Zurutuza**

**Resolución 12/2023 ebazpena**
Recurso 4/2023 errekurtsoa

LAGUNDUZ 2 SL, FUNDACIÓN SALUD Y COMUNIDAD eta LAHAR ELKARGOA ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALERAKO ELKARTEAK martxoaren 16ko 193/2023 Foru Aginduaren aurka jarritako kontratazio-arloko errekurtso berezian – 193/2023 Foru Agindua, Gizarte Politiketako foru diputatuarena, zeinaren bidez ARQUISOCIAL SL sozietateari adjudikatzen baitzaio Eibarko Egogain zentroan esku-hartze psikosozialeko programa garatzeko eta gauzatzeko zerbitzuaren kontratua (2022/109 espedientea) –, Kontratu Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboak, gaur egindako bilkuran, goian adierazitako kideak bertaratu direla, honako erabaki hau hartu du aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por LAGUNDUZ 2, S.L., FUNDACIÓN SALUD Y COMUNIDAD y LAHAR ELKARGOA ASOCIACIÓN PARA LA INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL contra la Orden Foral 193/2023, de 16 de marzo, de la diputada foral de Políticas Sociales, por la que se adjudica a ARQUISOCIAL, S.L. el contrato del servicio de desarrollo y ejecución del programa de intervención psicosocial en el centro Egogain de Eibar (expediente 2022/109), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

## AURREKARIAK

**LEHENENGOA.-** 2023ko apirilaren 5ean, Auzitegiaren erregistro elektronikoan idazki bat sartu zen. Horren bidez, LAGUNDUZ 2 SLk, FUNDACIÓN SALUD Y COMUNIDADek eta LAHAR ELKARGOA ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALERAKO ELKARTEAk kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri zuten ebazpen honen idazpuruan aipatutako foru aginduaren aurka; errekurtsoa 4/2023 zenbakiarekin erregistratu zen.

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.-** El día 5 de abril de 2023 tuvo entrada en el registro electrónico del Tribunal un escrito por el que LAGUNDUZ 2, S.L., FUNDACIÓN SALUD Y COMUNIDAD y LAHAR ELKARGOA ASOCIACIÓN PARA LA INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL interponen recurso especial en materia de contratación contra la orden foral referida en el encabezamiento de esta resolución; el recurso quedó registrado con el número 4/2023.

**BIGARRENA.-** Auzitegiak Gizarte Politiketako Departamentura bidali zuen errekurtsoa, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratazio-espedientea eta zegokion txostena eskatu zizkion. Horiek ekainaren 1ean jaso ziren, eta ekainaren 19an osatu zen, Auzitegi honek errekerimendua egin ondoren.

**SEGUNDO. -** El Tribunal remitió el recurso al Departamento de Políticas Sociales y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe, que se recibieron el 1 de junio, completado, previo requerimiento formulado desde este Tribunal, el 19 de junio.

Halaber, ofizio horretan gogorarazi zitzaion, kontuan hartuta errekurtsoa adjudikazio egintza baten aurka aurkeztu zela, kontratazio espedientearen izapidetzea etenda gelditzen zela, SPKL 53. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Le recordó asimismo que, dado que el recurso se había interpuesto contra el acto de adjudicación, la tramitación del expediente de contratación quedaba en suspenso en virtud de lo dispuesto en el artículo 53 LCSP.

**HIRUGARRENA.-** SPKLren 56.3 artikuluan xedatutakoa betez, errekurtsoaren berri eman zitzaion ARQUISOCIAL, S.L enpresari, eta bost eguneko epea eman zitzaion alegazioak aurkezteko.

**TERCERO. -** En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP se dio traslado del recurso a ARQUISOCIAL, S.L, concediéndole un plazo de cinco días para formular alegaciones.

Auzitegiaren erregistroan uztailaren 14an sartu zen idazkiaren bidez aurkeztu zituen alegazioak.

Las presentó mediante escrito que tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 14 de julio.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**Errekurtsoaren onargarritasuna**

**Admisibilidad del recurso**

**LEHENENGOA.- Xedea.**

Errekurtsoa zerbitzu kontratu baten esleipenaren aurka jarri da. Kontratu horren balio zenbatetsia 998.915,28 euro da.

Beraz, egintza horri errekurtso berezia jar dakioke kontratazio arloan, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikuluaren 1.a) eta 2.c) zatietan.

**PRIMERO. - Objeto.**

El recurso se interpone contra la adjudicación de un contrato de servicios cuyo valor estimado asciende a 998.915,28 euros.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.c) del artículo 44 LCSP.

**BIGARRENA.- Eskumena.**

Errekurtso horren berri izateko eskumena Auzitegi honi dagokio, kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko irailaren 28ko 24/2010 Foru

**SEGUNDO.- Competencia.**

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y

Dekretuaren 2.1 artikuluan esleitzen baitzaio.

**HIRUGARRENA.- Epea.**

Errekurtsoa SPKLren 50.1.d) artikuluan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epearen barruan aurkeztu da, kontuan hartuta errekurritutako foru agindua martxoaren 17an jakinarazi zela.

**LAUGARRENA.- Legitimazioa.**

Errekurtsoa jartzeko legitimazioa dute errekurtsogileek, SPKLren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, parte hartu duten lizitazio baten esleipena aurkaratzen baitute.

**<u>Auziaren mamia</u>**

**BOSGARRENA.- Errekurritutako jarduketa.**

2022ko abenduaren 20ko erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak Eibarko Egogain zentroan esku-hartze psikosozialeko programa garatu eta gauzatzeko zerbitzuaren kontratazio-espedientea onartu zuen (Espedientea: 2022/109), bai eta administrazio-klausula partikularren agiria (AKPA) eta preskripzio teknikoen agiria ere (PTA).

AKPA horretako ezaugarrien koadroko 20. puntuan gutxieneko soldata-baldintza batzuk ezarri ziren, exekuzio-baldintza berezi gisa, baldintza-agiriko XIII. eranskinean zehaztuta.

Bestalde, ezaugarri-taulako 25. puntua lan-harreman jakin batzuetako subrogazioari buruzkoa zen, eta AKPAren XII. eranskinean zehaztutako informaziora igortzen zuen; horrela, SPKLren 130. artikuluan jasotakoari erantzuten zion.

Lizitazioaren iragarkia 2023ko urtarrilaren 3an argitaratu zen Euskadiko Kontratazio Publikoa plataformako kontratatzailearen profilean.

regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**TERCERO. - Plazo.**

El recurso ha sido interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.d) LCSP, si se tiene en cuenta que la orden foral fue notificada el día 17 de marzo.

**CUARTO. - Legitimación.**

Las recurrentes están legitimadas para interponer el recurso de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, dado que impugnan la adjudicación de un contrato a cuya licitación han concurrido.

**<u>Fondo del asunto</u>**

**QUINTO. - La actuación recurrida.**

Mediante acuerdo de 20 de diciembre de 2022 el Consejo de Gobierno Foral aprobó el expediente de contratación del Servicio de desarrollo y ejecución del programa de intervención psicosocial en el centro Egogain de Eibar (Expte: 2022/109), así como el pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP) y el de prescripciones técnicas (PPT).

En el punto 20 del cuadro de características del referido PCAP se establecían, a modo de condición especial de ejecución, unas condiciones mínimas salariales, detalladas en el Anexo XIII del pliego.

El punto 25 del cuadro de características por su parte, se refería a la subrogación en determinadas relaciones laborales, remitiéndose a la información detallada en el anexo XII del PCAP, respondiendo así a lo recogido en el art.130 de la LCSP.

El anuncio de la licitación se publicó el 3 de enero de 2023 en el perfil del contratante alojado en la Plataforma Contratación Pública en Euskadi.

Eskaintzak aurkezteko epean, honako lizitatzaile hauen proposamenak jaso ziren:

1.- ARQUISOCIAL S.L.
2.- EGOGAIN 5 ABEE, LAGUNDUZ 2 SLk formalizatzekoa, FUNDACIÓN SALUD Y COMUNIDAD eta LAHAR ELKARGOA ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALERAKO ELKARTEA.

2023ko otsailaren 1ean, kontratazio-mahaiak aurretiko baldintzak betetzen zirela egiaztatzen zuten administrazio-agiriak ireki eta kalifikatu zituen.

Saio horretan bertan, BI zenbakidun artxibo elektronikoa ireki zen, eta kontratazio-mahaiak erabaki zuen artxibo horretako dokumentazioari txosten tekniko bat egitea, baloratzeko.

Otsailaren 17an egindako bilkuran, kontratazio-mahaiak txosten teknikoan proposatutako balorazioa eta puntuazioa berretsi zituen. Ondoren, HIRU zenbakidun artxibo elektronikoa ireki zen. Artxibo horrek, formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioaz gain, kontratuaren xede den zerbitzua emango zuten langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa adierazteko betebeharra jasotzen zuen. Egintza horretan egiaztatu zen bi lizitatzaileetako batek ere ez zuela gainditzen lizitazioaren gehieneko prezioa, eta, gainera, egiaztatu zen bete egin zela aplikatu beharreko hitzarmenari buruzko informazio-atala. Azken horri dagokionez,EGOGAIN 5 ABEE lizitatzaileak konpromisoa hartu zuen Gipuzkoako adinekoentzako egoitzen eraginkortasun mugatuko hitzarmen kolektiboa (2011ko martxoaren 17ko GAO, 52. zk.) eta Egogain 4 ABEEk eta ELAk 2022ko maiatzaren 18an sinatutako enpresa-akordioa aplikatzeko. Bestalde, ARQUISOCIAL SL lizitatzaileak konpromisoa hartu zuen Gipuzkoako Adinekoentzako Egoitzen Estatutuz Kanpoko Hitzarmen Kolektiboa (2022-2024; kodea: 20100075162022) aldatzeko Akordioa

En el plazo de presentación de ofertas se recibieron proposiciones de las siguientes licitadoras:

1.- ARQUISOCIAL S.L.
2.- UTE EGOGAIN 5, a formalizar por LAGUNDUZ 2, S.L., FUNDACIÓN SALUD Y COMUNIDAD y LAHAR ELKARGOA ASOCIACIÓN PARA LA INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL.

El 1 de febrero de 2023 la mesa de contratación procedió a la apertura y calificación de la documentación administrativa acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos.

En esa misma sesión se procedió a la apertura del archivo electrónico nº DOS y la mesa de contratación acordó someter la documentación de ese archivo a un informe técnico, a efectos de su valoración.

En sesión celebrada el día 17 de febrero, la mesa de contratación ratificó la valoración y puntuación propuesta en el Informe técnico. A continuación, procedió a la apertura del archivo electrónico nº TRES. Este archivo, además de referirse a la documentación relativa a criterios evaluables mediante fórmulas, incorporaba la obligación para indicar el convenio colectivo de aplicación al personal que fuera a prestar el servicio objeto del contrato. En ese acto se confirmó que ninguna de las dos licitadoras superaba el precio máximo de licitación, además de constatar el cumplimiento del apartado informativo referido al convenio aplicable. En relación a esto último, la licitadora UTE EGOGAIN 5 se comprometía a la aplicación del Convenio Colectivo de Eficacia Limitada de Residencias para personas mayores de Gipuzkoa, publicado en el BOG, n° 52, de 17 de marzo de 2011 y el Acuerdo de empresa, firmado entre UTE Egogain 4 y ELA, de fecha 18 de mayo de 2022. Por otro lado, la licitadora ARQUISOCIAL S.L. se comprometía al Acuerdo de Modificación del Convenio Colectivo Extraestatutario de eficacia limitada de Residencias para las Personas Mayores de Gipuzkoa, 2022-2024 (código

aplikatzeko, zeina irailaren 30eko 186/2022 GAOn argitaratu baitzen. Bileraren amaieran, erabaki zen, alde batetik, Hitzarmen Atalera bidaltzea, AKPAko ezaugarrien koadroko 19. puntuan aurreikusitako formulak aplikatzeko, eta, bestetik, lizitatzaileei eskatzea AKPAn jasotako soldata-baldintzei buruzko berariazko konpromisoa eransteko.

20100075162022), publicado en el BOG, 186/2022, de 30 de septiembre. La sesión concluía acordando, por un lado, remitir a la Sección de Concertación para aplicar las formulas previstas en el punto 19 del cuadro de características del PCAP y, por otro lado, requerir a las licitadoras para que adjuntaran un compromiso expreso con respecto a las condiciones salariales recogidas en el PCAP.

Apirilaren 23ko bilkuran, kontratazio-mahaiak HIRU artxiboko puntuazioa onartu zuen, eta, horri BI artxiboko puntuazioa gehituta, sailkapen-ordena hau atera zen:

En sesión de 23 de abril, la mesa de contratación aprobó la puntuación del archivo nº TRES, a lo que sumada la puntuación del archivo nº DOS, resultaba el siguiente orden de clasificación:

| | Lizitatzaileak / Licitadores | Balio-judizio bidezko balorazioa / Valoración mediante juicios de valor | Formula bidezko balorazioa / Valoración mediante fórmulas: | GUZTIRA / TOTAL |
|---|---|---|---|---|
| 1 | ARQUISOCIAL | 40,00 | 10,98 | 50,98 |
| 2 | UTE EGOGAIN 5 | 38,10 | 10,81 | 48,91 |

Kontratazio-mahaiak proposatuta, Gizarte Politiketako foro diputatuak, 2023ko martxoaren 16ko 193/2023 Foru Aginduaren bidez, ARQUISOCIAL SL enpresari esleitu zion kontratua.

A propuesta de la mesa de contratación, la diputada foral de Políticas Sociales, mediante la Orden Foral 193/2023, de 16 de marzo de 2023, adjudicó el contrato a ARQUISOCIAL, SL.

Adjudikazio horren aurka, LAGUNDUZ 2 SLk, FUNDACIÓN SALUD Y COMUNIDADek eta LAHAR ELKARGOA ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALERAKO ELKARTEAek, zeinaren eskaintza bigarren geratu baitzen behin betiko sailkapen-ordenan, errekurtso hau jarri dute.

Frente a esta adjudicación LAGUNDUZ 2, S.L., FUNDACIÓN SALUD Y COMUNIDAD y LAHAR ELKARGOA ASOCIACIÓN PARA LA INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL, cuya oferta quedó en segundo lugar en el orden de clasificación definitivo, interponen el presente recurso.

**SEIGARRENA.- Ezbaiaren objektua**

**SEXTO. - Los motivos del recurso.**

Adjudikazio-egintza aurkaratzen da arrazoi bakar batean oinarrituta: ARQUISOCIAL SL esleipendunaren eskaintzak zuzena ez den hitzarmen bati egiten dio erreferentzia, eta horren ondorioz kontratazio-organoak ez zuen proposamena onartu behar.

Se impugna el acto de adjudicación en base a un único motivo que se resume en que la oferta de la adjudicataria, ARQUISOCIAL S.L., hace referencia a un convenio que no es correcto, circunstancia que debería haber llevado al órgano de contratación a inadmitir la proposición.

Arrazoi horren aldeko argudioak honako hauek dira:

La argumentación que apoya el referido motivo es el siguiente:

- Lizitazio honen xede den kontratuan, enpresa

- En el contrato objeto de esta licitación, existe

esleipendunak subrogatu beharreko plantilla bat dago. Lizitazioa arautzen duten administrazio-agirietan bertan, 38.2.3 apartatuan aipatzen da subrogatzeko betebehar hori.

- Adjudikaziodunaren eskaintzak ez du kontuan hartu aurreko egoera, eta kontratuaren xede den zerbitzuan aplikagarria ez den hitzarmen batean oinarrituta dago, zeina ekonomikoki apalagoa baita.
- Adjudikazioaren proposamen teknikoa ez dago kostu errealen gainean eginda, hau da, subrogatu beharreko plantillaren kostuen gainean soldataren eta aplikatu beharreko lan-hitzarmenaren arabera. Hau da, ARQUISOCIAL SLk, lan-kostu txikiagoetan oinarrituta, prestakuntza-ekintza gehiago eskaini ahal izan ditu, eta horrek esan nahi du puntuazio hobea lortu duela eta, azken batean, esleipendun izan daitekeela. Laburbilduz, lan-kostuen arteko aldea da esleipena erabaki duena.
- Kontratazio-organoak, hitzarmena eta aplikatu beharreko akordioa ezagutzen zituenez, ez zuen onartu behar esleipendun gertatu zen proposamena, eta ez zuen horri buruzko argibiderik eskatu behar.
- Kontratazio-organoak lizitazioa hutsaldu du, adjudikazio-egintzan enpresa esleipendunak proposatzen duen hitzarmena aipatzen duenean, eta, aldi berean, honako hau jasotzen duenean: "Era berean, XII. eranskinean ezarritako gutxieneko soldata-baldintzak beteko dira". Eranskin honetan, ordea, une honetan ezarrita dauden lan-baldintzak aipatzen dira, eta horiek aplikatu behar zaizkie subrogatu beharreko langileei, eta horien gainean egin behar dira eskaintza teknikoak eta ekonomikoak.

Argudio horiek oinarri hartuta, amaitzeko, Auzitegi honi eskatzen dio ebazpena eman dezala esleipena erabat deusez deklaratzeko eta

una plantilla que ha de subrogar la empresa que resulte adjudicataria. Los propios pliegos administrativos que rigen la licitación, hacen referencia a esta obligación de subrogación en el apartado 38.2.3.

- La oferta adjudicataria no ha tenido en consideración la circunstancia anterior y está fundada sobre un convenio que no es de aplicación en el servicio objeto del contrato, inferior económicamente.
- La proposición técnica de la adjudicataria no está realizada sobre los costes reales, que son los costes de la plantilla a subrogar en base a su salario y convenio laboral de aplicación. Es decir, ARQUISOCIAL S.L. al basarse en unos costes laborales inferiores, ha podido ofertar un mayor número de acciones formativas, lo que se traduce en una mejor puntuación y, en definitiva, en resultar adjudicataria. En resumen, la diferencia de costes laborales es lo que ha decidido la adjudicación.
- El órgano de contratación, conocedor del Convenio y del Acuerdo de aplicación, no debía haber admitido la proposición que resultó adjudicataria, ni haber requerido aclaración al respecto.
- El órgano de contratación desvirtúa la licitación, cuando en el acto de adjudicación hace referencia al convenio que propone la empresa adjudicataria, y simultáneamente, recoge que *"Asimismo, se dará cumplimiento a las condiciones mínimas salariales establecidas en el Anexo XII"*, cuando las recogidas en este Anexo, hacen referencia a las condiciones laborales que están establecidas en estos momentos y que son éstas las que se han de aplicar a la plantilla a subrogar y sobre las que se han de hacer las ofertas técnicas y económicas.

En base a estos argumentos, concluye solicitando de este Tribunal que dicte resolución por la que declare nulo de pleno derecho y deje sin efecto, la

ondoriorik gabe uzteko eta jarduketak atzera eramateko, prozeduratik kanpo uzteko ARQUISOCIAL SL, eta izapideekin jarraitzeko, harik eta LAGUNDUZ 2 SL – FUNDACIÓN SALUD Y COMUNIDAD-LAHAR ELKARGOAren artean eratuko den ABEEri kontratua esleitu arte.

adjudicación y retrotrayendo las actuaciones, se excluya del procedimiento a ARQUISOCIAL, S.L. y se continúen los trámites hasta la adjudicación del contrato a favor de la UTE a constituir entre LAGUNDUZ 2, S.L. – FUNDACIÓN SALUD Y COMUNIDAD-LAHAR ELKARGOA.

**ZAZPIGARRENA. - Departamentuaren posizioa.**

Departamentuaren iritzia zerbitzu sustatzaileak maiatzaren 18an emandako txostenean islatzen da, eta Auzitegi honetara bidalitako espedientearen kopiarekin batera doa.

Txosten honek, errekurtsoaren idazkian egiten diren baieztapenak gogorarazi ondoren, Departamentuaren posizioa azaltzeko garrantzitsuak diren alderdiak kokatzen ditu, hala nola exekuzio-baldintza berezia, ezaugarrien taulako 20. atalean dagoena, eta subrogatzeko betebeharrari buruzko informazioa, aipatutako ezaugarrien taulako 25. atalean jasotzen dena.

Jarraian, AKPAren IX. eranskineko bi eskaintzak betetzeari egiten zaio erreferentzia, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboari buruzko informazioari dagokionez.

Horri dagokionez, eskaintza esleipendunari dagokionez, txostenak lehen ondorio bat atera du:

*«(...) lizitatzaileak aurkeztu duen eskaintza zorrotz egokitu zaie lizitazio hau arautzen duten agiriei. Agirietan, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboaren berri emateko betebeharra jasotzen da. Kontratatu beharreko zerbitzuaren eremuan, Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkariaren 2022ko irailaren 26ko Ebazpenak xedatu zuen Gipuzkoako adinekoentzako egoitzen eraginkortasun sektorial mugatuko estatutuz kanpoko hitzarmen kolektiboa (testu bategina) aldatzeko erabakia gordailutzea eta argitaratzea. Estatutuz kanpoko hitzarmen kolektibo batek eraginkortasun mugatua duenez, ezin du*

**SÉPTIMO. - Posición del departamento.**

La opinión del departamento tiene reflejo en el Informe, de fecha 18 de mayo, emitido desde el Servicio promotor, que acompaña a la copia del expediente remitido a este Tribunal.

Este informe, tras recordar afirmaciones que se realizan en el escrito de recurso, comienza por enmarcar aspectos que son relevantes de cara a ilustrar su posición, como es la condición especial de ejecución, obrante en el apartado 20 del cuadro de características, y la información acerca de la obligación de subrogación que se recoge en el apartado 25 del referido cuadro de características.

A continuación, se hace referencia al cumplimiento en ambas ofertas del apartado del anexo IX del PCAP, referido a la información sobre el convenio colectivo aplicable.

A este respecto, en relación con la oferta adjudicataria, el informe llega a una primera conclusión:

*"(...) la oferta que ha presentado la licitadora Arquisocial se ha ajustado escrupulosamente a los pliegos que rigen la presente licitación. Los pliegos recogen la obligación de informar del convenio colectivo de aplicación. En el ámbito del servicio a contratar, la Resolución de 26 de septiembre de 2022, del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, dispuso el depósito y publicación del Acuerdo de modificación -Texto refundido- del convenio colectivo extraestatutario de eficacia limitada sectorial de residencias para las personas mayores de Gipuzkoa 2022-2024. La característica de ser convenio colectivo*

*Hitzarmen Kolektiboen Erregistrorako sarbidea izan, baina ez du eragozten itun hori Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistro eta Gordailuari buruzko urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren xedapen gehigarriaren arabera gordailutzea (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2011-2-15ekoa).»*

*extraestatutario de eficacia limitada, impide que él tenga acceso al Registro de Convenio Colectivos, si bien no impide que dicho pacto sea depositado de acuerdo con la Disposición Adicional del Decreto 9/2011, de 25 de enero, de registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos de trabajo del País Vasco (Boletín Oficial del País Vasco de 15-2-2011).”*

HIRU artxiboa ireki ondoren egindako argitze-errekerimenduari dagokionez, txostenak honako gogoeta hau egiten du:

En relación con el requerimiento de aclaración cursado tras la apertura del archivo nº TRES, el informe realiza la siguiente consideración:

*«Lizitazio-prozesuan, 3. artxiboa ireki ondoren (eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebalua daitezkeen beste elementu batzuk), kontratazio-organoak, kontratua esleitzeko asmoz eta 2023ko urtarrilaren 17an kontratatzailearen profilean argitaratu zen oharra argitzeko asmoz (errekurtsogileak ohar horri erreferentzia egin zion errekurtsoaren 11. puntuan), bi lizitatzaileei eskatu zien baldintza-agirietako XIII. eranskinean (AKPAren 29. klausula) erantsitako soldata-baldintzen berariazko konpromisoa egiteko. Lizitatzaileek, beren erantzunean, konpromisoa hartzen dute honako hauek betetzeko: baldintza-agirietan jada esaten dena, XIII. ERANSKINEAN jasotzen diren gutxieneko soldata-baldintzak eta baldintza-agiri horien karatulako 20. apartatuan gauzatze-baldintza bereziei buruz ezarritakoa.»*

*“En el proceso de licitación, tras la apertura del archivo 3 (oferta económica y otros elementos evaluables por fórmulas), el órgano de contratación, con el fin de adjudicar el contrato y con el ánimo de aclarar el aviso que se publicó en el perfil de contratante el 17 de enero de 2023, al que la recurrente hace referencia en el punto 11 del recurso (que podía haber inducido a error) se requirió a ambas licitadoras para que realizaran su compromiso expreso a las condiciones salariales que se adjuntaban en el Anexo XIII de los pliegos (cláusula 29 del PCAP). Las licitadoras en su respuesta se comprometen a cumplir lo que ya dicen los pliegos, las condiciones mínimas salariales que se recogen en el ANEXO XIII y lo establecido en el apartado 20 de la carátula de dichos pliegos referidos a las condiciones especiales de ejecución.”*

Txostenaren amaieran, errekurtsogileak esaten du eskaintza esleitua lan-kostu txikiagoetan oinarrituta egongo litzatekeela eta, beraz, prestakuntza-ordu gehiago eta prezio txikiagoa eskaintzeko aukera izango zukeela, baina baieztapen horrek ez du inolako daturik justifikatzen. Gainera, gogorarazten du proposamenetako batek ere ez zuela eskaintza anormalki baxuegirik egin.

Concluye el informe considerando que la afirmación de la parte recurrente referida a que la oferta adjudicataria estaría fundada sobre unos costes laborables inferiores y que, por lo tanto, le habría posibilitado ofrecer más horas de formación y un precio menor, no encuentra justificación en ningún dato, además de recordar que ninguna de las proposiciones había incurrido en oferta anormalmente baja.

Horregatik guztiagatik, errekurtsoa ezestea eta errekurtsogileen puntuazioari eustea proposatu du.

Por todo ello, propone a este Tribunal acuerde desestimar el recurso.

**ZORTZIGARRENA.- Esleipendunaren jarrera.**

**OCTAVO.- Posición de la adjudicataria.**

La adjudicataria se limita a adherirse a todo lo

Zerbitzu sustatzaileak errekurtsoari erantzuteko egindako txostenean adierazitako guztiari atxiki besterik ez du egin eseipendunak, eta ez du bestelako oharrik egin aurkeztutako errekurtsoa errespetatzeari buruz.

indicado en el Informe del Servicio promotor en respuesta al recurso, sin hacer ninguna otra consideración al respeto del recurso presentado.

**Auzitegiaren kontsiderazioak,**

**BEDERATZIGARRENA.-** Errekurtsoak esleipena baliogabetzeko eskatzen du, laburbilduz, esleipendunaren eskaintzak zuzena ez den hitzarmen bat jasotzen duela argudiatuz. Hitzarmen hori ezin izango litzateke lizitazioaren xede den zerbitzuan aplikatu, eta ekonomikoki txikiagoa izango litzateke. Hitzarmen horrek aukera emango lioke adjudikaziodunari, gaur egun ezarrita daudenak baino soldata-kostu txikiagoak oinarri hartuta, proposamen hobea aurkezteko (prestakuntza-ordu gehiago eta prezio txikiagoa).

Kontratua sustatu duen zerbitzuak, bere aldetik, errekurtsoa zela eta egindako txostenean, errekurtsogilearen tesiaren aurka egin zuen, bi lizitatzaileek beren eskaintza baldintza-agirien arabera egin dutela defendatu baitzuen, AKPAren IX. eranskinean agertzen den adierazpena betez, exekuzio-baldintza bereziei lotuz eta baldintza-agirietan jasotako gutxieneko soldata-baldintzak bete behar dituztela berariaz berresteko errekerimenduari erantzunez.

Errekurtsoaren analisia lizitazioa arautzen duten baldintza-agirietan ezarritakotik abiatu behar da. Baldintza-agiri horien edukiak botere esleitzailea eta esleipen-prozeduran parte hartzen dutenak lotzen ditu, eta jarraian azalduko ditugu.

AKPAren ezaugarrien koadroko 4. atalean Lizitazioaren Oinarrizko Aurrekontua ezartzen da, konprometitu beharreko gastuaren gehieneko zenbatekoa. Haren banakapena eta urteka banatzea ezaugarrien taulan bertan ezartzen da, eta, 2022ko azaroaren 9ko txosten ekonomikoaren arabera, espedientea onartu aurretik, kontuan hartzen ditu Gipuzkoako adinekoentzako egoitzen eraginkortasun mugatuko hitzarmen kolektiboa

**Consideraciones del Tribunal.**

**NOVENO.-** El recurso solicita la anulación de la adjudicación, aduciendo, en síntesis, que la oferta de la adjudicataria contempla un convenio que no es correcto. Este convenio, que no sería aplicable en el servicio objeto de licitación y que sería inferior económicamente, habría permitido al adjudicatario, partir de unos costes salariales inferiores a los establecidos en la actualidad y, presentar una mejor proposición (más horas de formación y un precio menor).

El servicio promotor del contrato, por su parte, en el informe elaborado con ocasión del recurso, rebate la tesis de la recurrente al defender que ambas licitadoras han formulado su oferta de conformidad con los pliegos, cumplimentando la declaración que consta en el anexo IX del PCAP, vinculándose a las condiciones especiales de ejecución y atendiendo al requerimiento para confirmar específicamente su sometimiento a las condiciones mínimas salariales recogidas en los pliegos.

El análisis del recurso debe partir de lo establecido en los pliegos que rigen la licitación, cuyo contenido vincula al poder adjudicador y a los participantes en el procedimiento de adjudicación y que pasamos a exponer.

En el apartado 4 del cuadro de características del PCAP se establece el Presupuesto Base de Licitación que supone el importe máximo de gasto a comprometer. Su desglose y la distribución por anualidades se establece en el propio cuadro de características y, según el informe económico de 9 de noviembre de 2022, previo a la aprobación del expediente, toma en consideración el Convenio Colectivo de Eficacia Limitada de Residencias

(GAO, 52. zk., 2011ko martxoaren 17koa) eta 2022ko maiatzaren 18ko enpresa-akordioa, Egogain ABEEk eta ELAk sinatua, SPKLren 100. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

para personas mayores de Gipuzkoa (BOG nº 52, de 17 de marzo de 2011) y el Acuerdo de empresa de 18 de mayo de 2022, firmado entre UTE Egogain y ELA, conforme a lo dispuesto en el artículo 100 de la LCSP.

Prezioa zehazteari dagokionez, ezaugarrien taulako atal horrek berak adierazten du kontratu hau prezio unitarioen arabera esleitzen dela (kasu honetan, lanorduak), SPKLren 309 artikuluan, eta AKPAren IX. eranskinean, lizitazioaren gehieneko prezioak adierazten dira. Beraz, kontratazio-organoak erreferentziako hitzarmena kontuan hartuta finkatu dituen magnitude horiek maximoak dira, eta ezin dira gainditu, baina ez minimoak. Hain zuzen ere, prezioari dagokion adjudikazio-irizpidea da lizitazioko gehieneko prezioak osatzen dituzten zenbatekoak baino txikiagoak eskaintzea.

